


EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2020



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

**B**ilbao



# Natasha Barrett eta Mikel Iturregi

Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa



Natasha Barrett. Arg.: Jan Erik Breimo

Otsailean, musika akusmatikoa eta soinu elektroakustikoa konposatzen dituen [Natasha Barrett](#) artista britainiararen lana aurkeztuko dugu, [Mikel Iturregi](#) bertako artistarekin lagunduta.

[Natasha Barrett-ek](#) (UK, 1972) musika akusmatikoa eta elektroakustikoa lantzen ditu, bakarka, ensembleetan eta soinu-instalazioetarako. Normalean, beste musikari, artista bisual, arkitekto eta zientzialari batzuekin aritzen da lankidetzan. Azken 20 urteetan aditu bilakatu da Ambisonics-en eta forma espazio-musikalak sortzen.

Artista britainiar hau Oslon bizi da, eta sari ugari jaso ditu, besteak beste: Nordic Council Music Prize (Eskandinavia, 2006), Giga-Hertz Award (Alemania, 2008), Edvard Prize (2004, Norvegia), Noroit-Leonce Petitot (Arras, Frantzia, 2002 & 1998).

[Barrettek](#)in batera jardungo duen [Mikel Iturregi](#) (Sopela, 1997) pianoan konpositoreak, hiru obra aurkeztuko ditu otsailaren 5ean, eta horietako bi erabateko estreinaldiak izango dira: *Aunque tenga los huesos cubiertos de pequeñas orquídeas*, pianorako bakarrik; *Tres jardines ciegos*, akusmatikoa; eta azkenik, akordeoi eta elektronikarako pieza berri bat, kontzerturako espresuki idatzia.

Gainera, Gabriel Erkorekaren pianorako *Nubes* obrak, Uros Rojkoren akordeoi eta pianorako *Bagatellen* obrak eta Maurice Ravelen *Ronsard à son âme* abestiaren moldaketa bat ere interpretatuko dituzte. Antzezleak [Garazi Navas](#) akordeoia eta Mikel Iturregi pianoa eta elektronika izango dira.

Euskal musikaria Leioako Udal Kontserbatorioan eta Musikenen jaso du prestakuntza, eta konposizio espezialitateko goi-maila egin du (2015-2019), Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano, Zuriñe Fernández Gerenabarrena eta Stefano Scarani irakasleekin. Iturregi lankidetzan aritu da Musikene Orkestrarekin (2016), Helmut Lachenmann-en Schreien interpretatzen, Arturo Tamayoren zuzendaritzapean. Gainera, Bilboko Udal Bandak, Musikene Sinfonietak, Kuraia Ensembleak eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak, besteak beste, haren obrak interpretatu dituzte.

////////////////////////////////////

**Otsailak 5, asteazkena**

**19:30**

**Lantegia 1**

**8€ / 6€ Az Txartelarekin**

**Sarrerak: Az Info eta  
azkunazentroa.eus**

////////////////////////////////////

 [natashabarrett.org](http://natashabarrett.org)

Kontzertu hau [Hotsetan](#) programaren barruan sartuta dago, hau da, hurbileko eta nazioarteko artisten soinu-lana ezagutzera emateko eta sortzaileen arteko elkarketa bultzatzeko Azkuna Zentroak duen [Musika Esperimentaleko Programan](#).